

KOSTU EGITURA:

Edozein proiektu aurrera eramateak hainbat gastu ditu, eta mota desberdinetakoak.

KOSTU FINKOAK: Proiektuari hasiera ematerako momentuan ez genuke soldata finkorik izango ez dakigulako zer moduz joango den enpresa eta zenbateko diru-sarrera izango dugun. Hala ere, informatikariari soldata finko bat ordaintzea beharrezkoa dela uste dugu, 1100€ inguru kobratuko zuen. Nahiz eta asko ez izan, ulergarria da enpresa berri bat dela kontuan hartzen badugu. Enpresa handitzen doan einean honen soldata eta baita kontratatuko ditugun beste langileenak gora egingo lukete.

Hasiera batean ez genuke alokairurik ordaindu beharko, dena gure web orriaren bitartez egingo baitzen. Hala ere enpresa handitzean toki fisiko bat beharrezkoa dela uste dugu, gure bezeroekin biltzeko. Alokairu hori kostu finkoetan sartuko zen.

Gure aplikazioa aurrera eramaten dugunean, kostu finkoa izango litzateke, gure aplikazioa *Apple Store* antzeko plataformetan mantentzeko behar den diruaren ondorioz (90€ inguru).

KOSTU ALDAKORRAK: Gure proiektuak ez duenez inolako inbertsio handirik ezta kosturik ere, izango zituen kostu aldakor bakarrak bidaiak bakoitzak izango lukeen kostua izango zen, garraio desberdin, hotel edota ekintza desberdinen prezioak denbora guztian aldatzen baitaude, baita bidaiak seguruak ere.

KOSTU ZUZENAK ETA ZEHARKAKOAK: Kostu finko eta aldakorrak aztertu ondoren proiektuak izango dituen kostu zuzenak eta zeharkakoak argi utzi behar dira. Kostu zuzenen kasuan bidaiak eta hauen seguruak ditugu, gure enpresaren kasuan lehengaitzat hartu ditzazkegulako, bezeroak ordaindu baino lehenago guk ordaindu behar baititugu bidaiak. Zeharkako kostuen kasuan beste gastu guztiak ditugu, informatikoaren soldata, ez baita eskulan zuzena, etorkizunean sortuko dugun aplikazioak izango dituen kostuak edota etorkizuneko lokalaren alokairuak izango dituen gastuak (argia, ura, alokairua bera...)

INGURUMEN KOSTUAK: Gure enpresak, edozein bidaiak-agentzia bezala, toki batetik bestera erabilitako garraioen kutsadura izango zen ingurumenarekiko izango lukeen gastua. Hala ere bezeroaren erabakia da zein garraio erabili, beraz beraien eskutan dago zenbateko ingurumen kostua izan.